KULTURA-POLITIKA ETA EUSKARA ARLOA
EUSKARA ETA KULTURA

BALDINTZATEKNIKOEN AGIRIA
PLIEGO CLÁUSULAS TÉCNICAS

IKASLEEN EUSKARAZKO AHOZKO-TASUN MAILA SENDOTZEKO, BASAURIKO IKASTETXEETAN «BERTSOGINTZA ETA AHOZKOTA-SUNA » PROGRAMA DISEINATU, KUDEATU ETA EMATEKO ZERBITZU KONTRATUA

CONTRATO DE SERVICIOS PARA EL DISEÑO, GESTIÓN Y PRESTACIÓN DEL PROGRAMA "BERTSOGINTZA ETA AHOZKOTASUNA" EN CENTROS ESCOLARES DE BASAURI PARA LA CONSOLIDACIÓN DEL NIVEL ORAL DE EUSKERA DEL ALUMNADO

Basauriko ikastetxeetako lehen hezkuntzako 6. mailako eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako 1.mailako ikasleei bertsogintza eta ahozkotazuna lantzeko programa diseinatu, kudeatu, antolatu eta emateko klausula teknikoen plegua.

Pliego de cláusulas técnicas para el diseño, gestión, organización e impartición del programa BERTSOGINTZA ETA AHOZKOTASUNA dirigido al alumnado de 6º de Educación Primaria y 1º de Educación Secundaria en los centros de enseñanza de Basauri.

1- KONTRATUAREN XEDEA:

1-OBJETO DEL CONTRATO:

Kontratu honen xedea honako hau da: udalerriko ikastetxeetan bertsogintza eta ahozkotasuna lantzeko eskolak antolatu, kudeatu, eman eta ebaluatzea.

El objeto del presente contrato es la organización, gestión, impartición y evaluación de las clases de bertsolarismo y oralidad en los centros escolares del municipio.

Ikasleek euskara normaltasunez erabil dezaten hizkuntza bizia ikasi eta landu behar dute, motibatuta eta modu atseginean. Proiektuak ikasleen euskararen ahozkotasun maila sendotzeko eta hobetzeko proposamena jasoko du. Ohiko bide formaletatik kanpo, ahozko generoari lotutako baliabideak erabiliko dira hizkuntzaren lanketarako bide moduan.

Para que el alumnado participe de un uso normalizado del euskera, deben aprender y trabajar el lenguaje vivo, motivados y de un modo agradable. El proyecto recogerá la propuesta de mejorar y afianzar el nivel oral en euskera del alumnado. Además de las vías formales habituales, se utilizarán recursos propios del género oral como medio para trabajar el propio lenguaje.

Programa hau oso ondo baloratu izan da beti ikastetxeen aldetik, guztiz positiboa delako euskararen ahozko erabilera lantzeko, bertsolaritza ezagutzeko eta euskal kultura bera hobeto ezagutzeko. Udalak ere oso ondo baloratzen du programa, oso mesedegarria delako Basauri moduko udalerri batean euskararen erabilera indartzeko, ahozkotasuna lantzeko eta bertsozaletasuna zabaltzeko. Horregatik

Este programa siempre ha sido muy bien valorado por los centros escolares, es del todo positivo para trabajar el uso oral en euskera, para conocer el bertsolarismo, y para conocer mejor también la propia cultura vasca. El ayuntamiento también valora muy bien el programa, es muy beneficioso en un municipio como Basauri para fortalecer el uso del euskera, para trabajar la expresión oral, y difundir la afición al bertsolarismo. Por

Udalak euskara herrian sustatzeko indarrean daukan AROA izeneko plan estrategikoan ekintza modura jaso du bertsolaritza lantzeko saioak antolatzea, euskararen ahozko erabilera indartzeko bide modura.

ello, el Ayuntamiento en su plan estratégico de promoción del euskera en el municipio, en AROA, contempla como acción la organización de sesiones de bertsolarismo como vía para potenciar el uso oral del euskera.

2- ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK ETA HARTZAILEAK

2- CARACTERISTICAS DEL SERVICIO Y PARTICIPANTES.

Ikastetxeen curriculumean osagarri modura txertatzeko moduko programa bat izango da, LHko 6. Mailako ikasleei eta DBHko 1. Mailako ikasleei zuzenduta.

Será un programa para incluirlo de forma complementaria en el currículo de los centros, dirigido al alumnado de 6 de Primaria y 1º de ESO.

Saioak astean ordubete batekoak dira, eskolako ordutegi barruan emango dira eta programaren iraupena ikasturtekoa izango da: saioak irailaren bigarren hamabostaldian hasi eta maiatzaren 31an amaituko dira. Aurretik ordutegiak eta egutegia adostuko dira ikastetxeekin eta ekainean balorazioak jaso eta ebaluazioa egingo da.

Las sesiones serán de 1 hora semanal, se impartirán dentro del horario escolar y la duración del programa es de curso escolar: las sesiones comenzarán la segunda quincena de setiembre y finalizarán el 31 de mayo. Anteriormente, en setiembre se acordarán con los centros escolares los horarios y el calendario y en junio se recogerán las valoraciones y se realizará la evaluación.

Astean eman beharreko ordu-kopurua ezberdina izan daiteke ikasturte batetik bestera ikastetxeetan dagoen ikasle eta gela kopuruaren arabera. 2025/2026 ikasturterako hauexek dira aurrikusi diren gela edo talde kopuruak ikastetxez ikastetxe.

El número de horas de sesiones semanales podrá variar de un curso a otro, en función del número de grupos y de alumnado en cada curso escolar. Para el curso 2025/2026 el número de aulas y de grupos previsto centro a centro es el siguiente:

	MAILA/K	TALDEAK	ORDUAK ASTEAN
Arizko ikastola H.I.	LH 6	3	3
Basozelai-Gaztelu H.I.	LH6	2	2
Bizkotxalde H.I.	LH6	2	2
Etxegarai H.I.	LH6	2	2
Kareaga Goikoa H.I.	LH6	2	2
San Jose ikastetxea	LH6	2	2
Sofia Taramona	LH6	2	2
Kooperatiba Basauri ikastetxea	LH6	1	1

Urbi Institutua	DBH1	6	6
Uribarri Institutua	DBH1	4	2
GUZTIRA:		26	24

Ikasturtearen hasieran edota ikasturte batetik bestera aurrikusitako talde edota saio kopurua aldatuko balitz, kontratuaren prezioari dagokion aldea aplikatuko litzaioke, taldeko prezioaren arabera.

En el caso de que al inicio del curso o de un curso a otro el número de grupos o sesiones variara respecto a lo previsto, se modificaría el contrato vigente aplicando la diferencia en base al precio/grupo.

Ordu eta egun banaketa ikastetxe bakoitzeko zuzendari eta arduradunekin adostu egin beharko da, beti ere eskola ordutegia kontutan hartuta, eta udaleko Euskara zerbitzuaren oneritziarekin.

La distribución de horarios y de calendario se deben acordar con cada director y responsable de centro, teniendo en cuenta siempre el calendario escolar de cada uno de ellos, y con el visto bueno del Servicio de Euskera.

Egitasmoan ikasturtean zehar ikastetxeetan antolatu daitezkeen ekintza osagarriak jasoko dira: bertso kantaldiak, bertso saioak, eta abar, eta esleipendunak horiek garatzea proposatuko die ikastetxeei. Ekintza horien gastua, ikastetxe antolatzaileak edota ikastetxeko guraso elkarteak hartuko dute euren gain.

En el programa se recogerán actividades complementarias que se puedan organizar en los centros escolares: recitales de bertsos, actuaciones de bertsos, etc, y el adjudicatario realizará a los centros escolares la propuesta de realización. El gasto correspondiente a estas actividades será a cargo del centro escolar organizador o del ampa correspondiente.

Ikasturtearen amaieran ikastetxeetako ikasle parte-hartzaileekin eskolarteko topaketa antolatuko da Social Antzokian. Hori posible ez balitz udalak eta zerbitzu kudeatzaileak beste ekintza bat adostuko dute ikasturteari amaiera emateko.

A final de curso se organizará un encuentro interescolar en Social Antzokia con el alumnado participante. Si no fuera posible el Ayuntamiento y la entidad gestora del servicio acordarán otra actividad similar para finalizar el curso.

Ikasturte amaierako ekitaldia antolatzeak izango dituen gastu guztiak aurreikusi beharko ditu esleipendunak: koordinazioa, aurkezpena, gidoia, dinamizazioa eta garraioa (Sofia Taramona ikastetxeko ikasleentzat).

El adjudicatario deberá prever todos los gastos que conlleva la organización de este evento final de curso: coordinación, presentación, guión, dinamización y transporte (para el alumnado de Sofia Taramona).

3- ZERBITZUAREN ZEHAZTAPENA ETA ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK

3- DETERMINACIÓN DEL SERVICIO Y OBLIGACIONES DEL ADJUDICATARIO

Zerbitzuaren proposamenak ondokoak jaso beharko ditu :

En la propuesta del servicio se incluirán:

1- Saioen plangintza egitea eta kudeatzea

2.1- Confección y gestión del programa de clases.

- Bertsogintza saioen urteko egitaraua egitea eta abian jartzea, Euskara Zerbitzuarekin eta ikastetxeekin adostuta. Egitasmoak klaseek bete beharreko helburuak, materiala, programazioa eta kronograma jasoko ditu.

- Zerbitzua kudeatzea.

2.2- Koordinazio lanak

- Udaleko Euskara Zerbitzuarekin koordinatzea, zerbitzuaren garapenarekin zerikusia duen orotan. Basauriko Udalak garatutako prozesuari buruz informazio osoa, zuzena eta zehatza izan beharko du.

- Ikastetxeetan arduradunekin koordinatzea programaren garapena bera.

- Enpresa adjudikaziodunak, gutxienez, koordinatzaile tekniko edo arduradun bat izendatuko du, Udalarekin harremanetan egoteko solaskidea izango dena eta zuzendaritza lanak egingo dituena.

- Zerbitzua emango duten langileekin mantendu beharreko komunikazioa enpresak izendatutako bere bitartez gauzatuko da.

2.3.- Baliabideak

Enpresa esleipedunak, bere aldetik, zerbitzua emateko ekipo eta baliabide materialak eta giza baliabideak jarriko ditu

2.4-Proiektuaren ebaluaketa

Ikasturtearen amaieran garatutako jardueraren balorazio txostena aurkeztuko da, ikastetxez ikastetxe, egindakoa. Era berean, txosten horretan parte-hartu duten ikastetxeen balorazioak jaso beharko dira, ikasleenak eta irakasle arduradunarenak.

- Elaborar y poner en marcha de acuerdo con el Servicio de Euskera municipal y los propios centros de enseñanza el programa anual. La programación recogerá objetivos, material, programa y cronograma.

- Gestionar el servicio

2.2- Labores de coordinación

- Coordinación con el Servicio de Euskera municipal en todo lo que tenga que ver con el desarrollo del servicio. El ayuntamiento de Basauri deberá tener información directa y exhaustiva de todo el proceso desarrollado.

- Coordinación con las personas responsables de los centros escolares el desarrollo del programa en sí.

- La empresa adjudicataria designará al menos una persona coordinadora o responsable, que será la persona interlocutora con quien se relacionará el Ayuntamiento.

- La comunicación a mantener con el personal que prestará el servicio se realizará a través de la persona coordinadora designada por la empresa.

2.3. Medios

La empresa contratista aportará los equipos y medios materiales y personales para la prestación del servicio

2.4-Evaluación del proyecto

Al final del curso se presentará un informe de valoración de la actividad desarrollada detallada centro a centro. Del mismo modo, en dicho informe se deberán incluir también las valoraciones de los centros participantes, del alumnado y del profesor/a responsable.

2.5-Enpresa adjudikaziodunaren langileak.

Azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuak, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoak, 36.6 artikuluan ezartzen duenez, kontratua gauzatzeko hizkuntza-baldintzei dagokienez, honako printzipio hauek hartuko dira kontutan: proportzionaltasun-printzipioa bermatuko da, kasu bakoitzean dauden ezaugarrien, xedearen eta hartzaileen arabera; kontratuaren bidez bete behar diren eginkizuneai lotuta egongo dira; eta enpresak bere baliabideen edo besteen baliabideen bitartez egiaztatu ahalko ditu.

Basauriko Udalak 2023ko azaroan "Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak" onartu ditu, eta horietan kontratu publikoen hizkuntza klausulen gainean printzipio berberak jaso dira, Dekretuak jaso dituenak.

Kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriek kontratua euskaraz gauzatzea eskatzen dute. Basaurin D eredua da nagusi Lehen eta Bigarren Hezkuntzan, eta "Bertsolaritza eta Ahozkotasuna" programa jasoko duten ikasleak ziklo horretakoak dira Horregatik, programa honetan lanean arituko diren hezitzaileak Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoko Euskara C1 tituluaren jabe izan beharko dira.

Bestaldetik, kontratua aurrera eramango duen enpresa esleipendunak euskaraz izango ditu aurrez-aurre, e-postaz, zein telefono bidezko harremanak herriko eskoletako eta udaleko ordezkariekin.

Horretaz gain, Zerbitzua betetzeko proposatzen diren langileek, prestakuntza eta esperientzia nahikoa eta egokia izan beharko dute. Zerbitzua beteko duten hezitzaileek honako betebeharrak izango dituzte: formazioa eta esperientzia bertsogintzaren arloan; hau da,

2.5-Personal de la empresa adjudicataria.

El Decreto 179/2019 de 19 de noviembre, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi, en el artículo 36.6 establece, sobre las condiciones lingüísticas de ejecución del contrato, que se basarán en los siguientes principios: se garantizará el principio de proporcionalidad en función de las características, el objeto y las personas destinatarias en cada caso; estarán ligadas a los cometidos a llevar a cabo mediante el contrato; deberán ser acreditadas por la empresa tanto con medios propios como, en su caso, con medios externos.
El Ayuntamiento de Basauri ha aprobado en noviembre de 2023 los "Criterios de uso de las lenguas oficiales" en los que se recogen los mismos principios contenidos en el Decreto sobre las clausulas lingüísticas de los contratos públicos.

Las características inherentes de las prestaciones del contrato piden que el servicio que se contrata se lleve a cabo en euskera. En Basauri en Educación Primaria y Secundaria el modelo D es el predominante y el alumnado que va a participar en el "Bertsogintza eta Ahozkotasuna" es precisamente de Educación Primaria y Secundaria. Así pues, los y las educadoras que van a formar parte del programa deben estar en posesión del título C1 de euskera del Marco Común Europeo de Referencia.

Por otro lado, la empresa adjudicataria que lleve adelante el contrato realizará en euskera todas las comunicaciones, ya sean por correo, por teléfono o en persona, bien con los centros escolares, bien con los responsables del ayuntamiento.

Además los recursos humanos propuestos para la prestación de estos servicios deberán tener una preparación y experiencia adecuada para su prestación. En este sentido, se requiere que las personas que desarrollen las labores de educador tengan formación y

unibertsitate mailako ikasketak izatea edo erakunde ofizialek bertsolaritzari buruz emandako formazioak jaso izana, eta gutxienez bi urteko esperientzia kontratuaren helburuarekin lotura izan dezaketen programetan.

experiencia en el campo del bertsolarismo; esto es, que tengan estudios universitarios o hayan recibido formación sobre bertsolarismo en una entidad oficial, y acrediten una experiencia mínima de dos años en programas similares o relacionados con el objeto del contrato.

Behin kontratua esleituta, eta programarekin hasi aurretik, adjudikaziodunak Euskara Zerbitzuari helarazi beharko dizkio bertan parte hartuko duten irakasleen gaineko datuak, eta kontratuan ezarritako baldintzak betetzen dituztela ziurtatuko du agirien bidez.

Una vez adjudicado el contrato, y antes de poner en marcha el programa, la entidad adjudicataria deberá presentar en el Departamento municipal de Euskera los datos correspondientes a los/las educadores que participarán en el programa, y certificará que se cumplen las condiciones previstas en el contrato.

Era berean, zerbitzuko langile izan, eta lanean adin txikikoekin harremanetan dauden guztien aurrekari penal espezifikoen egiaztagiri negatiboak aurkeztu beharko ditu enpresak, hain zuzen ere, sexu-delituei buruzkoak. Hala egiteko xedatzen du Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzea arautzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legeak.

Asimismo, en cumplimiento de la Ley Orgánica 1/196 de Protección Jurídica del menor, modificada por la Ley 26/2015 de 28 de julio de Protección de la infancia, se presentarán certificados de antecedentes penales específicos sobre delitos sexuales de todas las personas trabajadoras del servicio que en el desempeño de sus funciones trabajen en contacto con menores.

EUSKARA TEKNIKARIA

ARANTZA ARANBURU OLABARRI - 11907799D

Firmado digitalmente por ARANTZA ARANBURU OLABARRI - 11907799D
Fecha: 2025.05.14 13:32:01 +02'00'